



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko irailaren 27a

105. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—10-22/PRO-00016. Foru Lege proposamena, zeinaren bidez ezartzen baitira Nafarroako etxebizitza-arloko jarduketa babesgarriei 2023an aplikatzekoak zaizkien moduluak. Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek eta Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (3. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 10-22/POR-00297. Galdera, energia berriztagarriak kultur ondasunetan ezartzeari buruzkoa. Jabi Arakama Urriaga jaunak egin du (5. or.).
- 10-22/POR-00298. Galdera, suteek kaltetutako baso-eremuak lehengoratzeari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (6. or.).
- 10-22/POR-00299. Galdera, Osasunbidea Osasun Zerbitzuko 350 langileren balizko kaleratzeari buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (6. or.).
- 10-22/POR-00300. Galdera, Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniarien Lanbide Elkargoak Esa urtegia handitzeko obren segurtasunaren inguruan emandako azken irizpenari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (7. or.).
- 10-22/POR-00301. Galdera, gobernuko kontseilarien eta zuzendari nagusien arteko bilera bat egin ondoren kontu-hartzailetzako txosten baten esanahia aldatzea babesten duen justifikazio juridikoari buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (8. or.).
- 10-22/POR-00302. Galdera, Nafarroako Ubidearen lehen fasea Ega zonaldean handitzearen egoerari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (8. or.).
- 10-22/POR-00303. Galdera, garraio-sektorearen egoerari eta datorren urteko aurrekontuetan hartuko diren neurriei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (9. or.).
- 10-22/POR-00304. Galdera, Nafarroako liburutegi publikoetan ematen den zerbitzuari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (9. or.).

- 10-22/POR-00305. Galdera, Dos Reinosko aintzira pairatzen ari den lehortea dela-eta Ureztatzaile Elkar-teak eginiko salaketari buruzkoa. Ainhoa Aznárez Igarza andreak egin du (10. or.).
- 10-22/POR-00306. Galdera, Erdizi buruz 2022ko urriaren 23an egitekoa den galdeketari buruzkoa. Isabel Olave Ballarena andreak egin du (10. or.).
- 10-22/POR-00307. Galdera, osasungintzako langileei egun bereziak ordaintzea dela-eta 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Legean onetsitako zuzenketa betetzeari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (11. or.).
- 10-22/POR-00308. Galdera, terroristak omentzeko ekitaldi publikoak ekiditeko aurreneurriei buruzkoa. Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak egin du (11. or.).
- 10-22/POR-00309. Galdera, Nafarroako Gobernuak AÚNA proiektua abian jartzeari buruz egiten duen balorazioaren gainekoa. Nuria Medina Santos andreak egin du (12. or.).
- 10-22/POR-00310. Galdera, Erretinako begi-gaixotasunen detekzio goiztiarrerako Programari buruzkoa. Patricia Fanlo Mateo andreak egin du (12. or.).
- 10-22/POR-00311. Galdera, garraio publikoan maskaren erabilera kentzeari buruzkoa. Patricia Fanlo Mateo andreak egin du (13. or.).
- 10-22/POR-00312. Galdera, larrialdiko osasun-garraioari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (13. or.).
- 10-22/POR-00313. Galdera, Nafarroak New Yorkeko Klimaren Asteaz izandako parte-hartzeari buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (14. or.).
- 10-22/POR-00314. Galdera, etxebizitza arloan onetsitako neurri berriek izanen duten eraginari buruzkoa. Mikel Buil García jaunak egin du (15. or.).
- 10-22/POR-00315. Galdera, Departamentuaren kudeaketaren ondorioz Foruzaingoan dagoen egonezinari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (15. or.).
- 10-22/POR-00316. Galdera, Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa onesteari buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (16. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

10-22/PRO-00016. Foru Lege proposamena, zeinaren bidez ezartzen baitira Nafarroako etxebizitza-arloko jarduketa babesgarriei 2023an aplikatzekoak zaizkien moduluak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 26an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek eta Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentariaren elkarteak Nafarroako etxebizitza-arloko jarduketa babesgarriei 2023an aplikatzekoak zaizkien moduluak ezartzen dituen Foru Lege proposamena aurkeztu dute, eta presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 111., 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako etxebizitza-arloko jarduketa babesgarriei 2023an aplikatzekoak zaizkien moduluak ezartzen dituen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin.

2. Foru lege proposamena presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetzea.

3. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta Nafarroako Gobernuari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi egunekoa dela.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2022ko irailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Lege proposamena, zeinaren bidez ezartzen baitira Nafarroako etxebizitza-arloko jarduketa babesgarriei 2023an aplikatzekoak zaizkien moduluak

HITZAURREA

Aparteko une bati aurre egin beharrean gaude, gehienbat Ukrainako gerraren eta horrek mundu-mailan sortu dituen ondorioen kariaz; halatan, energiaren eta lehengaien merkatuek kolpe handia nozitu badute ere, aipatu ondorioak gure ekonomia sektore guztietara hedatzen dira.

Guda horren ondorio nagusietako bat energia-kostuen gorakada ari da izaten, zeina ekoizpen-kostu orokorren gorakada eragiten ari baita mundu-mailan, baina batez ere Europan, hala nola Alemaniako ekonomian (% 7,5), Italiakoan (% 8,4), Austriakoan (% 9,3) edo Bulgariakoan (% 17,3). Espainiako estatuaren kasuan, % 10,4 ingurukoa izan da joan den abuztuan gehikuntza-tasa, eta badirudi joera dela datozen hilabeteetan geldotzea, uztailan goi-erpinera (% 10,8) iritsi ondoren.

Oro har, eraikuntzaren sektoreak eragin bikoitza jasan du: lehengaien prezio-gorakadarena eta horietakoren baten stock-etenarena. Eragin oso berretua jasan dute etxebizitza babestuak sustatzeko jarduketek, aurten nabarmenki mantsotu baita etxebizitza-sustapena.

Nafarroan, 2021eko urtarriletik abuztura bitartean behin-behineko kalifikazioa guztira 453 etxebizitza babesturi eman zitzairen (barne harturik babes ofizialeko etxebizitzak eta prezio tasatuko etxebizitzak); 2022. urteko epe berean, ordea, kalifikazioak 106 etxebizitzari bakarrik eman zitzaizkien; alegia, iaz sustatu zirenen laurdenei, ozta-ozta. Etxebizitza librearen sustapenean ere, nahiz eta proportzio txikiagoan, beherakada ohargarria gertatu da, 2021ean kalifikaturiko 1707 e-

txebizitza libreetatik 1.233 etxebizitzatarako jaisiera gertatu baita; hots, % 30eko gutxiagotzea.

Etxebizitza babestuaren eskaintzak izandako beherakada da kezkarriena, horixe izaki bizibide mugatuena dituzten familia eta pertsonentzako etxebizitza-mota, bermatzen duena etxebizitza eskuraeraz bat lortu ahal izatea.

Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legeko 10. artikulua xedatuaren ildotik, Nafarroako Gobernuari dagokio etxebizitza babesturako modulu ponderatu eta ponderatugabeen eguneraketa zehaztea. Adierazitako egoeraren apartekotasuna dela-eta, beharrezkoa gertatzen da modulu horiek gaurkotzea indar-hartze berehalakoa izanen duen lege-mailako arau baten bitartez, etxebizitza babestuaren sustapen-paralizatzea eragotzita.

Artikulu bakarra. Etxebizitza babestuen 2023ko gehieneko salmenta-prezioa.

1. Etxebizitza babestuen eta horien elementu erantsien 2023ko gehieneko salmenta-prezioa zehazteko, ez da aplikatzekoa izanen Nafarroan

etxebizitza izateko eskubideari buruzkoa maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legeko 10.1 artikuluko a) eta d) letretan xedatzen dena. Aplikatu beharrezkoa honakoa izanen da:

a) Nafarroako etxebizitza arloko jarduketa babesgarri 2023an aplikatuko zaien modulu ponderatua 1.456,96 eurokoa izanen da metro koadro erabilgarri bakoitzeko.

b) Nafarroako etxebizitza arloko jarduketa babesgarri 2023an aplikatuko zaien modulu ponderatugabea 1.398,68 eurokoa izanen da metro koadro erabilgarri bakoitzeko.

2. Aurreko apartatuan ezarritako modulu ponderatua halaber izanen zaie aplikatzekoa behin-behineko kalifikaziorako eskea foru lege honen indarraldia hasten denetik 2022ko abenduaren 31ra arteko bitartean aurkezten duten etxebizitza babestuaren espedientei.

Azken xedapenetako lehena. Indarrean sartzea.

Foru lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta indarrean sartuko da argitaratu eta biharamunean.

F saila:
GALDERAK

10-22/POR-00297. Galdera, energia berriztagarriak kultur ondasunetan ezartzeari buruzkoa.**JABI ARAKAMA URTIAGA JAUNAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jabi Arakama Urtiaga jaunak aurkeztutako galdera, energia berriztagarriak kultur ondasunetan ezartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jabi Arakama Urtiaga jaunak,

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kiroleko kontseilariak Legebiltzarreko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iragan irailaren 15ean Nafarroako Gobernuak Kultura Departamentuko ordezkari batek bilera egin zuen Espainiako Gobernuak Kultura eta Kirol Ministerioarekin eta autonomia erkidegoetako ordezkariekin eta bertan hitz egin zuten energia berriztagarriak kultur ondasunetan ezartzeari buruz.

Hori dela eta, Kulturako kontseilariari galdera egiten diogu bilera hartan harturiko erabakiei eta Nafarroako Gobernuak alor horretan egiten dituen urratsei buruz.

Iruñean, 2022ko irailaren 22an

Foru parlamentaria: Jabi Arakama Urtiaga

10-22/POR-00298. Galdera, suteek kaltetutako baso-eremuak lehengoratzeari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, suteek kaltetutako baso-eremuak lehengoratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du,

Gobernuak Parlamentu honetako hurrengo kontroleko Osoko Bilkuran, 2020ko irailaren 29an izatekoa den horretan, ahoz erantzun diezaion.

Azken hilabeteetan Nafarroan izandako baso-suteek 15.000 hektareatik gora kaltetu dituzte.

Kaltetutako lurzorua lehengoratzeko urtebetetik bost urtera beharko dira. Hala ere, eremu kaltetuenetan baliteke landaredia inoiz ez berreskuratzea.

Planak eta leheneratze-protokoloak ezarri behar dira suteek kaltetutako azalerak eta baso-eremuak behar bezala berreskuratzea lortzeko.

Zer plan eta leheneratze-protokolo ezartzeko asmoa du Nafarroako Gobernu Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak, ziurtatze aldera suteek kaltetutako baso-eremuak behar bezala leheneratzen direla?

Iruñean, 2022ko irailaren 22an

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

10-22/POR-00299. Galdera, Osasunbidea Osasun Zerbitzuko 350 langile-ren balizko kaleratzeari buruzkoa.

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkeztutako galdera, Osasunbidea Osasun Zerbitzuko 350 langilearen balizko kaleratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernu Osasuneko kontseilariak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko sindikatu eta ordezkariak salatu dute Osasun Departamentuak irailaren 30erako 350 langileri kontratua deuseztatu eta kaleratzeko asmoa duela. Langile horiek pandemiak kaltetutako pertsonak artatzeko eta ohiko egiturazko beharri-

nei erantzuteko COVID-19 kontingentearen barruan zeuden.

Hori ikusirik, ondokoa jakin nahi dut:

Zer azterketa eta arrazoi ditu Osasun Departamentuak Osasunbideko 350 langile kaleratzeko, Nafarroako osasun sare publikoak bizi duen egoera kritikoa kontuan hartuta?

Iruñean, 2022ko irailaren 22an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

10-22/POR-00300. Galdera, Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniarien Lanbide Elkargoak Esa urtegia handitzeko obren segurtasunaren inguruan emandako azken irizpenari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniarien Lanbide Elkargoak Esa urtegia handitzeko obren segurtasunaren inguruan emandako azken irizpenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako gaurkotasuneko galdera hau aurkezten du, Gobernuak Parlamentu honetako hurrengo kontroleko Osoko Bilkuran, 2022ko irailaren 29an izatekoa den horretan, ahoz erantzun diezaion.

Duela gutxi jakin dugu Estatuko Gobernuak Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniarien Lanbide Elkargoari eskatutako Esako urtegia handitzeko obren segurtasunaren inguruko azken irizpenak, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak emandako txostenetan oinarrituak, zenbait "ziurgabetasun" eta "zalantza" jasotzen dituela aipatu urtegia handitzeko prozesuaren segurtasuna dela-eta.

Zer iritzi du Gobernuak Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniarien Lanbide Elkargoak Esako urtegia handitzeko obren segurtasunari buruz emandako azken irizpena dela-eta?

Iruñean, 2022ko irailaren 22an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

10-22/POR-00301. Galdera, gobernuko kontseilarien eta zuzendari nagusien arteko bilera bat egin ondoren kontu-hartzaitzako txosten baten esanahia aldatzea babesten duen justifikazio juridikoari buruzkoa.

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkeztutako galdera, gobernuko kontseilarien eta zuzendari nagusien arteko bilera bat egin ondoren kontu-hartzaitzako txosten baten esanahia aldatzea babesten duen justifikazio juridikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer justifikazio juridikok babesten du Gobernuko kontseilarien eta zuzendari nagusien arteko bilera baten ondotik kontu-hartzaitzaren txosten baten esanahia aldatzea?

Iruñean, 2022ko irailaren 22an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

10-22/POR-00302. Galdera, Nafarroako Ubidearen lehen fasea Ega zonaldean handitzearen egoerari buruzkoa.

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Ubidearen lehen fasea Ega zonaldean handitzearen egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako Miguel Bujanda Cirauqui, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Ubidearen lehen fasea Ega zonaldean handitzeko obren egoera, fase guztiak amaitzeko eta ureztatzen hasteko data zehatza.

Iruñean, 2022ko irailaren 22an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

10-22/POR-00303. Galdera, garraio-sektorearen egoerari eta datorren urteko aurrekontuetan hartuko diren neurriei buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, garraio-sektorearen egoerari eta datorren urteko aurrekontuetan hartuko diren neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer balorazio egiten du Nafarroako Gobernuak gure erkidegoko garraio-sektorearen egoerari buruz eta zer neurri jarriko dute abian datorren urteko aurrekontuei begira?

Iruñean, 2022ko irailaren 22an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

10-22/POR-00304. Galdera, Nafarroako liburutegi publikoetan ematen den zerbitzuari buruzkoa.

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako liburutegi publikoetan ematen den zerbitzuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Legebiltzarraren hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Langileei dagokienez, zerbitzu osoa ematen ari al da Nafarroako liburutegi publikoetan?

Iruñean, 2022ko irailaren 22an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

10-22/POR-00305. Galdera, Dos Reinosko aintzira pairatzen ari den lehor-tea dela-eta Ureztatzaile Elkarteak eginiko salaketari buruzkoa.

AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztutako galdera, Dos Reinosko aintzira pairatzen ari den lehor-tea dela-eta Ureztatzaile Elkarteak eginiko salaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Aznárez Igarza andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen duenaren babesean, eskatzen du datorren irailaren 29ko Osoko Bilkuran Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariari zuzendutako ahozko galdera honako hau izatea:

Zer neurri hartuko du Nafarroako Gobernuak Dos Reinosko aintzira pairatzen ari den lehor-tea dela-eta Ureztatzaile Elkarteak eginiko salaketaren aurrean?

Iruñean, 2022ko irailaren 22an

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

10-22/POR-00306. Galdera, Erdizi buruz 2022ko urriaren 23an egitekoa den galdeketari buruzkoa.

ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak aurkeztutako galdera, Erdizi buruz 2022ko urriaren 23an egitekoa den galdeketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako Isabel Olave Ballarena andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ikusirik Baztango Batzar Nagusiak irailaren 15eko bilkuran hartutako erabakia, 2022ko urriaren 23an Erdizi buruzko galdeketa bat egitekoa, zer jarduketa egingen du Nafarroako Gobernuak legez kontrako deialdi horren aurrean?

Nafarroan, 2022ko irailaren 22an

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena

10-22/POR-00307. Galdera, osasungintzako langileei egun bereziak ordaintzea dela-eta 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Legean onetsitako zuzenketa betetzeari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztutako galdera, osasungintzako langileei egun bereziak ordaintzea dela-eta 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Legean onetsitako zuzenketa betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer egin du Nafarroako Gobernuak betetze aldera Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko langileei egun bereziak ordaintzea dela-eta 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Legean onetsitako zuzenketa?

Iruñean, 2022ko irailaren 22an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

10-22/POR-00308. Galdera, terroristak omentzeko ekitaldi publikoak ekiditeko aurreneurriari buruzkoa.

CARLOS PÉREZ-NIEVAS LÓPEZ DE GOICOECHEA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak aurkeztutako galdera, terroristak omentzeko ekitaldi publikoak ekiditeko aurreneurriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak ahoz erantzun dezan:

Zer aurreneurri hartuko du Nafarroako Gobernuak, ekidite aldera terroristen omentzeko ekitaldi publikoak, Iruñean berriki Mikel Castillorekin izandakoa bezalakoak?

Iruñean, 2022ko irailaren 22an

Foru parlamentaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

10-22/POR-00309. Galdera, Nafarroako Gobernuak AÚNA proiektua abian jartzeari buruz egiten duen balorazioaren gainekoa.

NURIA MEDINA SANTOS ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nuria Medina Santos andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak AUNA Proiektuaren abiarazpenaz duen iriztziari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Nuria Medina Santos andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Eskubide Sozialetako kontseilariak 2022ko irailaren 29ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer balorazio egiten du Nafarroako Gobernuak zaugarritasun-egoeran dauden pertsonak lanertzeko AÚNA proiektua abian jartzeari buruz?

Iruñean, 2022ko irailaren 22an

Foru parlamentaria: Nuria Medina Santos

10-22/POR-00310. Galdera, Erretinako begi-gaixotasunen detekzio goiztiarrerako Programari buruzkoa.

PATRICIA FANLO MATEO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Fanlo Mateo andreak aurkeztutako galdera, Erretinako begi-gaixotasunen detekzio goiztiarrerako Programari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Patricia Fanlo Mateo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osasuneko kontseilariak 2022ko irailaren 29ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Diabetesa edo hipertentsio arteriala bezalako patologia kronikoak dituzten pazienteen erretinako kaltearen detekzio goiztiarra lehentasunezkoa da Oinarrizko Osasun Laguntzan.

Zer emaitza egon da Nafarroako Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ezarritako Erretinako begi-gaixotasunen detekzio goiztiarrerako Programan?

Iruñean, 2022ko irailaren 22an

Foru parlamentaria: Patricia Fanlo Mateo

10-22/POR-00311. Galdera, garraio publikoan maskaren erabilera kentzeari buruzkoa.

PATRICIA FANLO MATEO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Fanlo Mateo andreak aurkeztutako galdera, garraio publikoan maskaren erabilera kentzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Patricia Fanlo Mateo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osasuneko kontseilariak 2022ko irailaren 29ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Ikusirik Nafarroako Foru Komunitatean COVID-19aren egoera epidemiologikoa hobetu dela:

Noizko aurreikusten da Nafarroako garraio publikoan maskararen erabilera kentzea?

Iruñean, 2022ko irailaren 22an

Foru parlamentaria: Patricia Fanlo Mateo

10-22/POR-00312. Galdera, larrialdiko osasun-garraioari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak larrialdiko osasun-garraioari buruz aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak irailaren 29ko Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Gure talde parlamentarioak eta Gobernuak sinatu zuten aurrekontuetarako akordioan ondokoa jasotzen zen osasun arloari dagokionez:

“c) Osasun Departamentuak konpromisoa hartzen du 2022an osasun garraiorako enpresa publiko bat sortzeko”.

Bestalde, Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Departamentuari buruzko atalean ondokoa adierazten zen:

“2).- Larrialdiko osasun-garraioa: Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuak eta Osasun Departamentuak, 2022an sortzen denean Nafarroako osasun garraioa kudeatuko duen enpresa publikoa, konpromisoa hartzen dute lehentasuna emateko 2010ean Osasun Garraioaren lantalde teknikoak eta Mahaiak emandako txostenaren edukia eta baita Nafarroako Babes Zibilaria eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legearen edukia ere baloratzeari. Horiek direla eta, uste da Nafarroako Larrialdiko Osasun-garraioaren Sarea ondoko baliabideek osatuko dutela: Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren beraren larrialdietarako anbulantziak eta

itunduta dituenak eta Nafarroako Foru Komunitateko Suhiltzaileen Zerbitzuaren larrialdietarako anbulantziak. Horrenbestez, zerbitzu horrek egini-ko osasun garraioa larrialdiak artatzeko zerbitzu gisa hartuko da”.

Hori dela-eta, honako hau galdetzen diogu Gobernuari:

Zein fasetan dago osasun garraiorako enpresa publiko baten sortze-prozesua eta Suhiltzaileen Zerbitzuak ematen duen larrialdietako osasun garraioaren mantentzea Nafarroako Larrialdiko Osasun-garraioaren Sareko beste zati bat bezala, enpresa publikoan sartu gabe?

Iruñean, 2022ko irailaren 26an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

10-22/POR-00313. Galdera, Nafarroak New Yorkeko Klimaren Astean izandako parte-hartzeari buruzkoa.

PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroak New Yorkeko Klimaren Astean izandako parte-hartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztzen du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak 2022ko irailaren 29ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Duela gutxi, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak New Yorkeko Klimaren Astean hartu du parte. Bertan Nafarroa nabarmendu da klima aldaketaren aurkako politika aktiboetan erregio aurreratuenetako bat izateagatik.

Zer balorazio egiten du kontseilariak eta zer nabarmenduko luke Nafarroak nazioarteko foru garrantzitsu horretan izandako parte-hartzea dela eta?

Iruñean, 2022ko irailaren 22an

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

10-22/POR-00314. Galdera, etxebizitza arloan onetsitako neurri berriek izanen duten eraginari buruzkoa.

MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, etxebizitza arloan onetsitako neurri berriek izanen duten eraginari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentariaren elkartearen eledun Mikel Buil García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, gaurkotasun handiko galdera hau aurkezten du irailaren 29ko Osoko Bilkurarako:

Zer eragin izanen dute etxebizitza arloan onetsitako neurri berriek, ikusirik gure erkidegoak bizi duen egoera ekonomikoa?

Iruñean, 2022ko irailaren 26an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

10-22/POR-00315. Galdera, Departamentuaren kudeaketaren ondorioz Foruzaingoan dagoen egonezinari buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Departamentuaren kudeaketaren ondorioz Foruzaingoan dagoen egonezinari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier Esparza Abaurrea jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Lehendakariitzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak irailaren 29ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer egingen du kontseilariak Foruzaingoan bere kudeaketaren ondorioz dagoen egonezin handia ikusita? Iruñean, 2022ko irailaren 26an

Iruñean, 2022ko irailaren 26an

Foru parlamentaria: Javier Esparza Abaurrea

10-22/POR-00316. Galdera, Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa onesteari buruzkoa.

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa onesteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Ramón Alzórriz Goñi jau-

nak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako gaurkotasun handiko galdera hau egiten du, lehen lehendakariorde eta Lehendakariitzako, Berdintasuneko, Funtzio Publiko eta Barneko kontseilariak 2022ko irailaren 29ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2022ko irailaren 29an Diputatuen Kongresuan eztabaidatuko da Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa.

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa onesteari buruz?

Iruñean, 2022ko irailaren 26an

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi